

ENOLOGIA BERRITZAILE MASTER OFIZIALA

UPV/EHU

EUSKO JAURLARITZAKO EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILAREN LANKIDETZAREKIN



PRESTAKUNTZA APROBETXAMENDU ONENAREN SARIAREN DEIALDIRAKO PROTOKOLOA

Helburua

Protokolo honek enologia berritzaileko master ofizialaren garapenean prestakuntza aprobetxamendu onearen saria aukeratzeko prozedura ezartzen du. Sari hauek Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin egindako lankidetzaren baitan kokatzen dira. Proiektuaren izena “UPV/EHUko Enologia Berritzaileko Master Ofizialaren esparruan irakaskuntza-jarduerak garatzea” da, eta, besteak beste, Master-Amaierako Lan (MAL) berritzaileak garatzen laguntzen du, bai eta doktorego-tesiak garatzen hastea ere unibertsitate-departamentu, zentro teknologiko edo/eta lan esperimentalak upategian. Sariaren deialdiak hauek finantzatzeko aukeren mende egongo dira.

Hautapenaren organo exekutiboa

Masterreko Unibertsitate-arteko Batzorde Akademikoak (MUBA) aukeratuko ditu sarituak. Hautaketa egiteko, protokolo honetako irizpideak hartuko dira kontuan.

Hautagaien baldintzak

Hautagaiak sariak deitzen diren ikasturtean MALa defendatu eta titulu akademikoa lortzeko kreditu guztiak gaindituta izan beharko dituzten ikasleak izan beharko dira.

Proposamenen ardatz izango diren ikerketa-arloak eta gaiak unibertsitateko sailekin, zentro teknologikoekin edo/eta mahastizaintza eta ardogintzako enprekin adostu behar dira.

Hautagaitzen aurkezpenak eta epeak

Hautagaitzen aurkezpen epea azaroko lehen hamabostaldia izango da.

Hautagaitzak Farmazia Fakultateko idazkaritzan telematikoki aurkeztu beharko dira (secretariadealumnado.ff@ehu.eus). Eskabidea aurkeztutzat joko da jaso izanaren agiria jaso ondoren. Agiri hori administrazio idazkaritzak emango du, masterraren idazkaritzaren onespenerekin.

Eskabideetan ondorengo agiri hauek aurkeztuko dira:

- MALaren memoria.
- Masterrean egindako eta gainditutako irakasgai guztien noten ziurtagiria (ofizioz eta kosturik gabe emango zaie hala eskatzen duten ikasleei, sarietarako hautagaitza aurkezteko helburuarekin)

Informazio hori fitxategi bakarrean bilduko da, eta honela identifikatuta bidaliko da: "Abizena_Iniziala_BiHiruHitzIzenburua_ENOL20xx" (dagokion urtea).

Saritutako ikasleen konpromisoak

Sarituek beren esperientziari buruzko berri bat egiteko konpromisoa hartuko dute, masterraren webgunean eta, ahal bada, Campusa aldizkari digitalean argitaratzeko.

Sariei dagokien atxikipena eta konturako sarrerak aplikatuko zaizkie. Nolanahi ere, saridunen erantzukizuna izango da aplikagarri zaizkien zerga-betebeharrak aitortzea eta onartzea.

Hautapen irizpideak

MUBAk ondorengo ebaluazio-irizpide hauek kontuan hartuta hautatuko du hautagaia:

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
<i>MALeko proiektuaz (memoria)</i>	<i>Gehienez 60 arte</i>
Gaiaren berritasuna	10
Gaiaren interesa	10
Ikerketaren zehaztasun zientifikoa	10
Memoriaren edukiak (planteamendua, helburuak, koherentzia helburuak-emaitzak-ondorioak...)	10
Idazketa (argitasuna eta irakurtzeko erraztasuna, terminologia...)	10

Elementu gehigarriak (taulak, eskemak, diagramak, formatua, bibliografia...)	5
MAL-eko nota	5
HAUTAGAI Aren inguruan (noten ziurtagiria)	Gehienez 40 arte

Saritutako hautagaien iragartzea eta aldarrikatzea

MUBAren azken erabakia, eskabide guztiak barematu ondoren, masterraren webgunean argitaratuko da eta saritutako ikasleari jakinaraziko zaio.

Saritutako ikasle guztiek Farmazia Fakultateko Idazkaritzak igorritako ziurtagiria jasoko dute.